

MUSIKA. Elkarlanean disketxeak abian jarri berri duen azpizigiluarekin, Laidarekin, eman dute argitara lana

Euskal kanta tradizionalak gaur egungo joerekin uztarturik

Igelaren Bandak
kantu ezagunak
jaso ditu bertsio
instrumentalean
bere lehen diskoan

Estibalitz Ezkerra | BILBO

Beren musika euskal kanta tradizioaren eta gaur egungo joeren arteko zubia dela diote. Baina, ororen gainetik, inprobisazioa maite dute. Bi ezaugarri horien emaitza da Igelaren Bandakoen lehen diskoa. Hamabi kantutan, euskal tradizioaren onena bildu dute bertsio instrumentalean, hala nola, bertsolarien kantatzeko eran oinarriturik dagoen *Txirrita kantuan*, Zuberoko *Basoilarra* ezaguna abiapuntu duen *Basoilarren basoa*, Arratiako Maurizia Aldaiturriagak abesten zuen *Ai! ezkondu*, edo Ondarroan Azkuek jasotako sehaska kanta bat gogor dakarren *Zaldi urdinak*.

«Guretzat erronka handia zen kanta hauek instrumentuekin grabatzea. Guztiak euskal tradizioetik jaso ditugu, eta, ondoren, nahierara garatu ditugu. Batzuk melodikoak dira, beste batzuek jazz ukitu bat daukate», azaldu zuen taldeko kide Bixente Martinezek. Hala ere, doinuen inguruan musikariak gauza bat argi utzi nahi izan zuen: «Ez genuen jazza besterik gabe egin nahi. Egia da jazz mundua oso aberatsa dela, eta interesgarria zaigula bertan ikasten denagatik. Baina bestelako estiloak ere probatu nahi genituen».

Igelaren Bandakoen lanaren beste atal garrantzitsu bat inprobisazioarena da. Hain zuzen, kantuak jo bitartean beren inspirazioari bide ematea gusatzatzen zaie taldekideei. «Hori dela eta, jendeak diskoan entzungo duena eta zuzeneko emanaldietan aurkituko duena agian ez da beti bat etorriko». Berezitasun hori dela medio, diskoa zuzeneko saioetan grabatu behar izan zuten, eta sei egun igaro zituzten estudioan. «Kanta bakoitzarekin hiru har-



JOSU ETXEBARRIOSTE

Igelaren Bandakoez zuzeneko emanaldi bat eskaini zuten atzo beren disko aurkezpenean.

tze egin genituen, inprobisazioaren freskotasuna ez galtzeko». Bestalde, estraineko lanerako Igelaren Bandakoez kolaboratzaile apartak eduki dituzte: Ben Morden musikari ingelesa —«Euskal Herrian grabatzen zegoela aprobetxatuz parte hartzeko eskatu genion»—, Bartzelonan dabilen Gorka Benitez, Oskorriko jendea, eta Mixel Etxekopart xirula jolea.

Musikari trebatuak

Kezka berdintsuak zituztelako, eta, batez ere, jotzea gogoko zutelako elkartu ziren Bixente Martinez, Txarli de Pablo eta Iñigo Egia orain dela hiru urte.

Musikari aski trebatuak, Oskorri, Hiru Truku, Kepa Junkera, Ruper Ordorika, Joseba Tapia, edo Oreka TXren ohiko kolaboratzaile dira. Talde bezala Euskal Herriko txoko gehienak bisitatu badituzte ere, orain arte diskorik grabatu gabe zeuden Igelaren Bandakoez. «Toki txiki askotan jo izan dugu. Proiektua bideragarria zen ala ez probatu nahi genuen, gure musika jendea gustatzen ote zitzaien jakin. Baina galdera bera egiten ziguten beti, ea lanen bat kaleraturik bageneukan, non eskura zitekeen eta abar. Horrek diskoa grabatzera animatu gintuen», zioen Martinezek.

Bestalde, Elkarlanean-ek bere azpizigilu berria ezagutarazi zuen atzo: Laida. Hain zuzen, Igelaren Bandaren lana da azpizigiluaren lehen diskoa. Bestalde, laster diskoetxeak honako lanak kaleratuko ditu: Anje Duhalderen *Georges Brassens kantari*, Txirri, Mirri eta Txiribitonen *Altza porru!*, Erramun Martikorenen *Kantuz sortu naiz eta...*, hainbat egilek osaturiko *Maitasun baladak*, Gregoriano bilduma, Oskorriren *Vizcaya-tik Bizkaia-ra*, Xabier Leteren *Berrehun urtez bertsoan*, Juanito Maltzetaren *Negarrez abesten dut* eta Donostiako Arriada.

Tapia, Ordorika eta Oienart 'Kantuketan' ekimenaren baitan Beran ariko dira

Erredakzioa | IRUÑEA

Euskal Kultur Erakundeak bultzatutako *Kantuketan* erakusketak Hego Euskal Herrira ailegatu da, Bera herri nafarrera, alegia. Ekimen horren barruan, kontzertua emanen dute datorren asteartean Ruper Ordorikak, Maddi Oienartek eta Joseba Tapiak.

Erakustaldia atzo zabaldu zuten, eta han egon da hirlaren 28a bitarte. Astelehenerik larunbatera bisitatu ahal izanen da.

Erakusketak euskal kantagintzaren historia eta garapena biltzen ditu. Hiru gune nagusitan soinuadun dutsak, informazio panelak eta bertzelako grabazioak aditu ahal dira; bi ordenagailu daude ere CD-Rom banarekin, eta bi bideo proiektzio.

Erakusketarekin batera, eta haren osagarri, kontzertu berezia izanen da datorren asteartean Berako Kultur Etxean, arratsaldeko 19:00etatik aurrera. Emanaldi horretan parte hartuko du Uzbekistango Dutortchillar taldeak. Euskal Kultur Erakundearen eskutik etorri da talde hori Euskal Herrira.

Emanaldi berean izanen dira Petti eta Joseba Irazoki berako musikariak, eta Joseba Tapia, Ruper Ordorika eta Maddi Oienart kantari ezagunak ere.

Talde ezaguna

Tapia, Ordorika eta Oienartek ederki ezagutzen dute Dutortchillar taldea, Uzbekistanen egon baitziren hiru urte udaberrian, EKEren eskutik ere.

azken zenbakia
JAKIN 125

Gai nagusia

Zientzia XXI. mendean

Sinpletasunetik konplexutasunerantz.

PEDRO MIGUEL ETXENIKE / JOSE MARIA PITARKE / FERNANDO PLAZAOLA

Zientziaren kultur erronkak. ANDONI IBARRA

Iritzi bilketa:

- JULIO ABASCAL / KEPA SARASOLA • KEPA ALTONAGA
- F.P. COSSIO / J.M. UGALDE • XABIER EIZAGIRRE
- INAKI IRAZABALBEITIA • JOSE MARIA URKIA

... eta aurtengo kolaboratzaileak

JOSEBA BALERDI • URTZI URRUTIKOETXEA
• IÑAKI MARTINEZ DE LUNA • AMATIÑO

kultura, literatura, soziolinguistika eta
komunikazioaren inguruko gertakariak komentatuz

egin zaitez harpidedun

Tolosa hiribidea, 103-1.C - 20018 DONOSTIA -Tel.: 943. 21.80.92 - Faxa: 943. 21.82.07 - jakin@jalgi.com